# I. Atala / Sección I

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
# Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

### Ogasun eta Finantza Saila

**Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1305/2015 FORU AGINDUA, ekainaren 18koa; honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Foru Erakunde Autonomoek lankidetza-hitzarmenak eta gomendioak egiteko eta diru-laguntzak emateko espedienteak izapidetzeko prozedurak ezartzen dira, hitzarmenak, gomendioak eta diru-laguntzak fiskalizatu eta kontabilizatzeko.**

2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Araua da Bizkaiko Lurralde Historikoko sektore publikoaren ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-jarduera arautzen duen erreferentziako dokumentu juridikoa.

2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez,Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina onartu zen. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten da.

Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren testu bategineko V. tituluak foru sektore publikoaren jarduera ekonomikoak eta finantzarioak kontrolatzeko eragiketak arautzen ditu, eta II. kapituluan, zehazki, fiskalizazio-prozeduren bidez egiten den kontrola jasotzen du.

Kontrolaren mende dauden espedienteak fiskalizatzeko, izapidetze eraginkor eta efizientea ahalbidetuko duten prozedurak ezarri behar dira.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorreko azken xedapenetatik lehenengoak baimena ematen dio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari araudia garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bizkaiko Foru Aldundiak edo foru erakunde autonomoek 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren babespean ematen dituzten diru-laguntzei dagozkien espedienteak izapidetzeko, prozedura batzuk ezarri behar dira, diru-laguntza horiek fiskalizatzeko.

Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen 169/2014 Foru Dekretuko 44. artikuluan aipatzen diren diru-laguntzak emateko hitzarmenen gaineko eragiketei dagozkien espedienteak izapidetzeko, diru-laguntzak fiskalizatzeko araubide orokorrerako ezarritako prozedurak erabiliko dira.

Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen 169/2014 Foru Dekretuko 45. artikuluan aipatzen diren kontratu-hitzarmenen gaineko eragiketei dagozkien espedienteak izapidetzeko,administrazio-kontratazioa fiskalizatzeko araubide orokorrerako ezarritako prozedurak erabiliko dira.

Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen 169/2014 Foru Dekretuko 46. artikuluan aipatzen diren lankidetza-hitzarmenen gaineko eragiketei dagozkien espedienteak izapidetzeko, hitzarmen horiek fiskalizatzeko berariaz ezarritako prozedurak erabiliko dira.

Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten duen 169/2014 Foru Dekretuko 47. artikuluan aipatzen diren gomendioen gaineko eragiketei dagozkien espedienteak izapidetzeko, gomendio horiek fiskalizatzeko berariaz ezarritako prozedurak erabiliko dira.

Ebazpen honen bidez, fiskalizazioa eta kontabilizazioa egiteko prozedura hauek ezartzeko gidalerroak ezartzen dira:

### Departamento de Hacienda y Finanzas

**ORDEN FORAL del diputado foral de Hacienda y Finanzas 1305/2015, de 18 de junio por la se dictan los procedimientos de tramitación de los expedientes para la celebración de los convenios de colaboración y de las encomiendas así como para la concesión de las subvenciones por la Diputación Foral de Bizkaia y los Organismos Autónomos Forales, para su fiscalización y contabilización.**

La Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, es el documento jurídico de referencia en la regulación de la actividad económico-financiera y presupuestaria del sector público foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

Mediante el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, se aprobó el Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria. Así mismo mediante el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, se aprobó el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia.

El Título V del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria regula las operaciones de Control sobre las actividades económicas y financieras del Sector Público Foral y, en concreto, en su capítulo II recoge la modalidad de control mediante procedimientos de Fiscalización.

La fiscalización de los expedientes sometidos a un control, requiere del establecimiento de los procedimientos que permitan una tramitación eficaz y eficiente.

En la disposición final primera del Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia se autoriza al diputado foral del departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para su desarrollo y aplicación.

La tramitación de los expedientes relativos a la concesión de subvenciones por la Diputación Foral de Bizkaia o sus Organismos Autónomos Forales al amparo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, requiere del establecimiento de unos procedimientos para su fiscalización.

La tramitación de los expedientes relativos a las operaciones sobre Convenios subvencionales a las que se refiere el artículo 44 del Decreto Foral 169/2014, Reglamento General Presupuestario, se regirán por los procedimientos establecidos para el régimen general de fiscalización de las subvenciones.

La tramitación de los expedientes relativos a las operaciones sobre Convenios contractuales a las que se refiere el artículo 45 del Decreto Foral 169/2014, Reglamento General Presupuestario, se regirán por los procedimientos establecidos para el régimen general de fiscalización de la contratación administrativa.

La tramitación de los expedientes relativos a las operaciones sobre Convenios de colaboración a las que se refiere el artículo 46 del Decreto Foral 169/2014, Reglamento General Presupuestario, se regirán por los procedimientos establecidos específicamente para su fiscalización.

La tramitación de los expedientes relativos a las operaciones sobre Encomiendas a las que se refiere el artículo 47 del Decreto Foral 169/2014, Reglamento General Presupuestario, se regirán por los procedimientos establecidos específicamente para su fiscalización.

Mediante la presente resolución se marcan las directrices para la implantación de los siguientes procedimientos de fiscalización y contabilización:

cve: BAO-BOB-2015a128

— Bizkaiko Foru Aldundiak edo foru erakunde autonomoek ematen dituzten diru-laguntzek eragindako gastua fiskalizatzeko prozedura.

— Bizkaiko Foru Aldundiak edo foru erakunde autonomoek egiten dituzten lankidetza-hitzarmenek eragindako gastua fiskalizatzeko prozedura.

— Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dituen gomendioek eragindako gastua fiskalizatzeko prozedura.

Horretarako, honako hau

XEDATZEN DUT:

**Artikulu bakarra**

Foru agindu honi eranskin gisa gehitu zaizkion espedienteak fiskalizatzeko prozedurak onestea.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau 2015eko ekainaren 22an jarriko da indarrean, eta beronen berri emango zaie foru sailetako zerbitzu orokorrei eta foru erakunde autonomoei.

Bilbon, 2015eko ekainaren 18an

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

— Procedimiento para la fiscalización en materia de concesión de subvenciones por la Diputación Foral de Bizkaia o sus Organismos Autónomos Forales.

— Procedimiento para la fiscalización en materia de celebración de convenios de colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia o sus Organismos Autónomos Forales.

— Procedimiento para la fiscalización en materia de realización de encomiendas por la Diputación Foral de Bizkaia.

A tal efecto,

DISPONGO:

**Artículo Único**

Aprobar los procedimientos para la fiscalización de los expedientes que se incorporan como anexo a la presente Orden Foral.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente orden foral entrará en vigor el 22 de junio de 2015 y se comunicará a los Servicios Generales de los Departamentos Forales y a los Organismos Autónomos Forales.

En Bilbao, a 18 de junio de 2015

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

cve: BAO-BOB-2015a128